

MUGIKORTASUN PROGRAMAK 2025-2026

KONTAKTUAK

- UPV/EHUn:

Estibaliz Apiñaniz. Nazioarteko Harremanetarako Koordinatzailea

esc-ingenieria.internacional@ehu.eus

<https://www.ehu.eus/es/web/vitoria-gasteizko-ingeniaritza-eskola/outgoing>

Kudeaketa akademikorako: Konpromiso Akademikoa, agiri horren aldaketak, egonaldia luzatzeko eskariak, etab.

Marian Santamaría/Jaime Ortiz de Urbina. Idazkaria

esc-ingenieria.internacional@ehu.eus

Kudeaketa administratiborako: informazioa, agiriak, zalantzak, etab.

Nazioarteko Harremanen Bulegoa (NHB). Beken kudeaketa

movilidad.internacional@ehu.eus; <https://www.ehu.eus/eu/web/nazioarteko-harremanak>

- Kanpoko Unibertsitatean:

Harremanetarako pertsona Nazioarteko Bulegokoa izan daiteke edo, bestela, koordinatzaile akademikoa.

Behar den dokumentazioa garaiz bidaltzeaz gain garrantzitsua da pertsona horri adieraztea noiz iritsiko zareten eta bertan zer egingo duzuen (gutxienez ere 3 hilabete).

BETE BEHARREKO URRATSAK

1. ABIATU AURRETIK

- **Eskaria (GAUR-en) egin ahal izateko baldintzak:**
 - Europako nazionalitatea edukitzea edo egoiliar iraunkorra izatea.
 - Gradu 2. mailan edo gorago egotea
 - 1. maila guztiz gaindituta edukitzea egonaldia hasi aurretik..
- **Hizkuntza** eskakizunak: Programa bakoitzaren taulan kontsulta daitezke. Helburuko unibertsitateak eskatutako maila zehatza eduki beharko da (web-orri bakoitzean begiratu).
- Parte hartu nahi duzuen programari buruzko **informazio guztia irakurri** Nazioarteko Harremanen Bulegoaren webgunean.
- **Konproba** ezazue hautatu nahi duzuen helburuko unibertsitatean **zuen titulazioa** eskaintzen dutela eta ahal den informazio guztia lortu unibertsitateari buruz, haren webguneen bitartez eta aurreko urteetan han egon diren ikasleen bitartez. Irakurri estekak eta iruzkinak Eskolako webgunean.
- **Unibertsitatearen posta elektronikoa** maiztasunez kontsultatu, komunikazioa posta elektronikoz bidez egingo baita. Kontuan izan Nazioarteko Harremanen Bulegoak eta GAUR sistemak bakarrik zuten EHUKo helbidea erabiltzen dutela (@ikasle.ehu.eus).
- Zuen egonaldiari buruzko **informazio-bilera guztietara joan**. Garrantzizko arrazoiak tarteko ezin bazarete bilera horietara joan, jakinaraz diezaguzue posta elektronikoz bidez.

- Dokumentuak.

Helburuko Unibertsitateari, dagokion epean (ikasle bakoitzak bilatu beharko du harrerako unibertsitateko webgunean epe-muga horiek zein diren eta prozedura: online, posta bidez, posta elektronikoz bidez ...), azpiko hiru dokumentuak bidali beharko dizkiozue. Helburuko unibertsitate batzuen kasuan, Eskolako Zuzendariordetzaren bitartez bidali beharko da (Marian-ekin kontaktatu) edo Nazioarteko Harremanen Bulegoaren bitartez (batez ere Amerika Latinoa eta Beste Norako-en programetan).

- 1) Eskaera** (Application Form) zeuek prestatu behar duzue, askotan online. Nork bere helburuko unibertsitatean eskatzen diotena egiaztatzeko erantzukizuna izango du, eta epe-mugak zein diren jakin beharko du.
- 2) Konpromiso akademikoan** (L.A. Learning Agreement) ikasleak helmugako unibertsitatean egingo dituen irakasgaiak zein EHU-n baliozkotu dituenak agertzen dira. Helburuko unibertsitate bakoitzak bere prozedura propioa izan dezake.

Egonaldiaren eduki akademikoa zuzendariordearekin (Estibaliz Apiñaniz) edo gradu bakoitzeko koordinatzaileekin adostu behar da abiatu baino lehen. Horretarako, Excel taula bat erabiliko dugu, bi unibertsitateetako ikasgaiak jarriz, kreditu kopuruak eta EHUko irakasgai mota (hautazko/derrigorrezkoa) argi erakutsiz. Helburuko unibertsitateko egin nahi dituzuen ikasgaien irakaskuntza-gida erantsi behar duzue.

- Zuen Konpromiso Akademikoan agertzen diren ikasgaiak EHU-n matrikulatuta egon behar dute baliozkotzea egin ahal izateko.
- Gutxienez ere 30 kreditu egin beharko dira, baldin eta egonaldia 5 hilabetekoa bada, eta 60 kreditu baldin eta egonaldia ikasturte osoa bada (irakurri ondo deialdia).
- Ezin izango dira baliozkotu aurrez Eskolan suspenditutako ikasgaiak.
- Helburuko unibertsitatean aukeratzen dituzuen ikasgaiak ingeniarietakoak izan behar dira. Hizkuntza-ikasgaiak soilik onartuko dira baldin eta pakete itxi baten barrenean badatoz, eta pakete horretan zer egiten duzuen aukeratzetik ez duzuenean.
- Eskolan nahitaezkoak diren ikasgaietarako, antzeko ikasgaiak proposatu behar dira (% 70).
- Hautazko ikasgaietarako askatasun handiagoa izango duzue, baina ingeniarietakoak izan beharko dute eta Eskolan baliozkotu behar dituzuen kreditu-kopuru bera izan beharko dute.
- Gradu Amaierako Lana egingo duzuenontzat, interesgarria litzateke aurrez helburuko unibertsitatearekin adostea Gradu Amaierako Lana eta hura zuzenduko duen tutorea. Horrela, arazoak saihestuko dituzue.

- 3) UPV/EHUko espediente akademikoa** (Transcript of Records) Marian Santamaria-k bidaliko dizue.

- Egonaldia prestatu

- Ostatua.** Ostatu-kontuak ahal bezain laster prestatu behar dituzue. Zeuek kudeatu beharrekoa da hori, helburuko unibertsitateak ematen dizuen informazioarekin. Unibertsitate batzuetan oso konplexua izan daiteke hori, eta lehenbailehen egitea komeni zaizue.
- Aseguru medikoa:** Gizarte Segurantzari galdetu hura lortzeko zer egin behar den. Europako kasuan, Europako Osasun Txartela da. Beste herrialdeetara bazoazte, Gizarte Segurantzako bulegoetan

galdetu beharko duzue nolako akordioak dauden, zer estaltzen duten eta nola funtzionatzen duten. Aseguru mediko pribatuak dituzuenok atzerrian nolako estaldura duzuen galdetu beharko duzue. GUZTIOK eraman beharko duzue aseguru mediko bat, eta haren kopia eskuratu beharko diozue Marian-i (eskaneatuta).

- Istripu eta aberriratzekoa aseguru.** Deialdiko oinarrietan esaten da NAHITAEZKOA dela atzerriko egonaldi OSOA hartuko duen aseguru bat KONTRATATZEA.

EHUK hitzarmen bat du: IBILI-EHU aseguru, zeinaren bidez ikasleei <https://www.ehu.es/eu/web/kontratazioa/ibili-ehu> eskaintzen baitzaie.

Aseguruaren fotokopia bat bidali beharko duzue Marian-i: esc-ingenieria.internacional@ehu.es.

- Erantzukizun zibileko aseguru.** Aseguru hori jada kontratatuta dauka Unibertsitateak ikasleentzat. Aseguru horrek helmugako unibertsitateetan eragin ditzakezuen kalteak estaltzen ditu; horietako batzuetan, hura aurkezteko eskatuko dizuete laborategietan sartu ahal izateko. Nolanahi ere, unibertsitate batzuek zeuen erantzukizun zibileko aseguru kontratatze eskatuko dizuete.

- Bisatua.** Bisatua eskatzen duten herrialdeetara joan behar duzuenok (bakarren bat seguru ez badago, Kanpo Arazoetarako Ministerioko webgunean topatuko duzue informazioa (www.maec.es), edo, bestela, enbaxadara telefonoz deitu beharko duzue) helburuko unibertsitateko nazioarteko arduradunari eskatu beharko diozue ikasle-trukeko programaren ikaslea izateari buruzko onarpen-ziurtagiria.

- Kredentzialak.** Zuen helburuko unibertsitate matrikularen frogagiria eta atzerrira doan ikaslearen ziurtagiri ofiziala (GAURen dago) a beharko duzue.

- Bekak.** Informazioa aldizka gaurkotuko da Nazioarteko Harremanen Bulegoaren webgunean.

Batzuk automatikoak dira, besteak eskatu behar dira. Mesedez, adi egon eta astero begiratu Webgunea.

Helburuko unibertsitatean iritsi eta irteerako ziurtagiriak sinatzen dizkizuetenean, ongi begiratu beharko duzue egonaldiak behar diren hilabeteak hartzen dituela. Hala ez bada, kobratutako beken parte proportzionala itzultzeko eskatuko dizuete.

- Erasmusera bakarrik: **"Diru-laguntzaren kontratua"** GAURetik jaitsi, bete, sinatu eta Nazioarteko Harremanen Bulegora bidali, kontratatu duzuen aseguruaren fotokopiarekin batera.

2. HELBURUKO UNIBERTSITATEAN

- Certificate of Arrival** (bertaratze ziurtagiria) Lehenengo egunetan, GAURetik deskargatu beharko duzue. Harrerako unibertsitatean hura sinatzeko eskatu eta [NHBra \(movilidad.internacional@ehu.es\)](mailto:NHBra(movilidad.internacional@ehu.es)) bidali beharko duzue. Bestela, ez dituzue bekak kobratuko.

- Konpromiso akademikoaren aldaketa.** Posta elektronikoki bidez eskatu ahalko diozue zuzendariordeari (Estibaliz Apiñaniz) edo gradu koordinaileari konpromiso akademikoaren aldaketa justifikatuak bidaltzeko (ordutegiak gainjarrita egoteagatik, irakasteko hizkuntzagatik, egiazko edukiagatik..), beranduenez helburuko unibertsitatean ikasturtea hasi eta **15 eguneko epean**.

- Helburuko unibertsitatean gasteizko eskolako ikasgaien azterketak egiteko aukera.** Honen helburua da helburuko unibertsitatean klaseak edo azterketak gal ditzazuen saihestea. Azterketa Eskolan egiten den **egun berean eta ordu berean** egingo litzateke (kontuz herrialde batzuetako jai-egun eta ordutegiekin), eta haren ardura duen irakasleak posta elektronikoz igorriko lioke helburuko unibertsitateari.

Behin egin ondoren, harrerako unibertsitateko arduradunak kopia eskaneatu bat eta jatorrizko azterketa igorri beharko dio (azterketa egin ondoren) ikasgaiko irakasleari.

Azterketa horrela egin ahal izatea ez da eskubide bat. Hori dela eta, Eskolako irakasleek ez dute zertan prozedura hori jarraitu, eta kontuan hartu beharko duzue prozesu horri datxezkion arriskuak onartzen ari zaretela (zerbitzariak huts egitea, jatorrizko azterketa posta-zerbitzuetan galtzea eta abar). Urrutiko azterketa bat egiteko, honako urratsak egin beharko dituzue:

1. Baimena eskatu kasuko ikasgaiko irakasleari.
2. Helburuko zentroko koordinatzailearekin harremanetan jarri, zuri azterketa egiteko prest dagoen jakiteko.
3. Eskari-inprimaki bat bidali azterketari buruzko informazioarekin: data, ordua eta irakasle arduraduna.

Eskatzeko epea: abenduaren 15a, urtarrileko deialdirako, eta maiatzaren 1a, maiatzeko deialdirako.

Ez da onartuko inongo urrutiko azterketarik, data horretarako adierazitako hiru urratsak egin ez badira. Azterketa horietakoren bat suspendituz gero, azterketa berrikusteko prozesua ohikoa izango da; ezin izango da urrutiko berrikuspenik egin.

3. EGONALDIAREN AMAIERAN

- Transcript of Records.** Harrerako unibertsitatean azterketak amaitzen dituzuenean, kanpo unibertsitateak kalifikazioak Noten ziurtagiria (Transcript of Records) izenaz ezagutzen den inprimaki batean, guri bidali behar dizkigu helbide honetara: esc-ingenieria.internacional@ehu.eus.

Paperean bidaltzekotan (ez da ezinbestekoa):

Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteizko Ingeniaritza Eskola
Nazioarteko Harremanak
Nieves Cano kalea, 12.
01006 Vitoria-Gasteiz (Spain)

Behin Eskolan, emaitzak jaso ditugunean Konpromiso Akademikoaren arabera baliozkotuko dira (ikus Web orrialdea). Helburuko unibertsitatean ikasgairen bat suspenditzen baduzue, hemen suspendituzat joko dugu.

- Egonaldi Amaierako Txostena:** Eskolara zuen egonaldiari buruzko laburpen bat igorri beharko diguzue, testu librekoa, helburuko unibertsitate berera etorkizunean joan daitezkeen ikasleei zuzendua, gure web-orrian publikatzeko: esc-ingenieria.internacional@ehu.eus.
- Certificate of Departure.** Nazioarteko Harremanen Bulegora (NHB): egonaldia-amaierako ziurtagiria, (GAUR-en aurki dezakezue) bidali beharko diozue (**movilidad.internacional@ehu.eus**), harrerako unibertsitateak sinatuta.

KONTUZ: egonaldiaren hasierako eta amaierako datek zuzenak izan beharko dute. Urtero daude dirua itzuli behar izaten duten ikasleak.

- Inkesta.** Nazioarteko Harremanen Bulegoak (NHB) on-line inkesta bat betetzeko eskatuko dizue.